

BALIO PROPOSAMENA

Beste kanpaleku guztietatik desberdintzen gaituena hurrengo da: gazteentzako eksklusiboki egindako kanpin bat eskainiko dugu, 16-22 urte bitartekoentzat soilik izango dena. Uda partean kanpin moduan funtzionatuko du eta ekintza desberdinak eskainiko dira. Neguan, aldiz, irteerak eta aldikako ekintzak antolatuko dira, eta alokairuak eskeiniko dira tailerrak, erakusketak eta horrelakoak egin nahi dituenarentzat.

Gazteen erosotasunerako, inguru naturala izateaz gain, mota desberdinetako partzela eta bungalow-ak edukiko ditugu. Gainera, aire librean lo egiteko aukera ere izango da.



Horrez gain, kanpin barruan, denda bat, taberna bat, gauetan irekita egongo den pistina bat, futbol zelaia, tennis pistak, etab. aurkitu ahal izango dira. Kanpina handia izango denez gero, langileak ibiliko lirateke gazteen beharrei erantzuteko.



Azkenik, sarreran kontenedore handi batzuk ezartzea erabaki dugu, kanpin guztian zehar zakarrontzi txikiagoak ezartzeaz gain, gazteak ingurumenaren inguruan kontzientziatzeko eta birziklatzeko aukera emateko. Kontenedore horiek kanpoan izango dugun parkingaren albo batean kokatuko ditugu eta hortik gertu harrera-lekua kokatuko dugu, kanpinera sartzeko.

